



# Eskola Publikoan, ikaslearen ebaluazioa ardatz



**Uzt. 01 - Uzt. 03 2024**

**Kod. H06-24**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 01 - Uzt. 03 2024

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

30 ordu

**Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua**

15 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



## Azalpena

XXI.mendean sartuta gauden honetan, Euskal Eskola Publikoaz aritzea garrantzitsutzat jotzen dugu ezinbestean LOMLOE legearen gauzatzeak egin izan duguna birpentsatzera eta aldatzera eramango gaituelako. Eskola Publikoak bere ahalduntze prozesuan jarraitu beharra dauka euskal gizartearen kohesioaren mesedetan eta euskal herritarren hezkuntza kalitatea bermatuz.

Uda Ikastaro honetan LOMLOE legearen inplementazioak sortu dituen begirada, hausnarketa, eginbehar eta gauzatze berriei buruz hitz egin nahi dugu.

Konpetentzietan oinarritu beharreko hezkuntza praktiken aurrean gaude eta marko berritzaile honek gauza asko aldatzera gonbidatzera gaitu, beste hainbeste desikastera eta eginbeharreko guzti-guztiak ikaslea erdigunean jarrita egitera.

Aldaketa garaiak, garai "nahasiak" izaten direla ezin ukatu eta nahasmendua ahal den eta txikiena izan nahian, elkarrekin jardutea izan daiteke argirik indartsuena. Ziurgabetasuna izango omen da datozen urteetako ezaugarrietako bat eta guri ikasleei ziurgabetasun hori kudeatzeko dakizkigun tresna egokienak eskaintzea da, hala ere, paradoxikoki, ziurgabetasuna gurea ere bada, orain arte egindakoa ez baita gaur egun balekoa.

Egoera honetan ere, irakasleak, ikasleak eta familiak ez daudela bakarrik irudikatu nahi dugu, baditugula aurrera eramaten ari garen praktika onak, badugula berrikuntzarako grina, baditugula ispiluak non begiratu, badugula elkarrengandik zer ikasi eta badugula ere aldi berean Euskal Eskola Publikoa osatzen dugunon sarea indartu beharra.

## Helburuak

LOMLOE legearen garapena ikastetxeetan eta ikasgelan modu egokian bideratzeko Euskal Eskola Publikoa egiten ari den ahaleginak balioan jarri eta plazaratu.

Praktika onen bidez aipatu legearen gauzatze praktikoarekin lotutako esperientziak gertutik ezagutu.

Konpetentzietan hezitu beharrak EBALUAZIOAn eta ebaluatzeko moduetan sortzen dituen ajeak eta aukerak partekatu eta honen inguruko hausnarketa kolektiboa butzatu.

Ikaslearen irteera profila behin zehaztuta, helburu honi erantzuteko IRAKASLEEN sarrera profila, identitatea, sistema nola sartzen diren eta nola sartu beharko lirakekeen aztertu.

LOMLOE legearen gauzatzeak sortzen dizkigun argi ilunak eta aukerak eta mehatxuak definitu eta aurrerantzean begirada non, zertan eta zertarako jarri behar dugun antzeman.

Ikastaroa bera hausnarketa kolektiboa egiteko gune bihurtu. Irtenbideen lanketa ere elkarrekin egin eta laguntza behar izanez gero, ikastetxeak eta zuzendaritza taldeak sistemako kideen bidelagun izateko prest daudela jakinarazi.

## Lankidetz



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Programa

## 2024-07-01

09:00 - 09:15 Erregistroa

---

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena  
**Josu Etxaburu Osa** | HEIZE - Idazkari Teknikoa

---

09:25 - 10:30 “Ebaluazioaren garrantzia hobekuntzarako”  
**Begoña Pedrosa Lobato** | Hezkuntza Saila - Sailburuordea

---

10:30 - 11:30 “LOMLOE eta ebaluazio Eskola Publikoan”  
**Iñigo Salaberria Aliaga** | HEIZE - Presidentea

---

11:30 - 12:00 Atsedena

---

12:00 - 13:30 “Bertaratutakoekin elkarrizketan 1”  
**Iñigo Salaberria Aliaga** | HEIZE - Presidentea

---

13:30 - 14:15 “Praktika onak 1: Konpetentzietan hezitzen (eremukako lanketa) “  
**Leire Arenal Garcia** | Bermeo BHI - Zuzendaria

---

14:15 - 14:30 Sintesia

---

## 2024-07-02

09:00 - 10:15 “Irakasleriaren identitatea, sarrera profila eta kultura profesionala “  
**Maialen Oiartzun Irastorza** | EHU - Ikertzailea  
**Nerea Muguruza Azkarraga** | EHU - Ikertzailea

---

10:15 - 11:30 “Ebaluazio aginduaren inguruko gogoeta partekatua “  
Euskal Herriko agintaritzaren aldizkarian 2024ko urtarrilaren 31an argitaratutakoa  
**Idoia Pujana Uriarte** | Botikazar BHI - Zuzendaria

---

11:30 - 12:00 Atsedena

---

12:00 - 12:45 “Praktika onak 2: Konpetentzien ebaluazioaren gauzatze praktikoak”  
**Olatz Altzua Galparsoro** | Arrasate BHI - Zuzendaria

---

12:45 - 14:15 “Bertaratutakoekin elkarrizketan 2”  
**Iñigo Salaberria Aliaga** | HEIZE - Presidentea

---

14:15 - 14:30 Sintesia

---

## 2024-07-03

09:00 - 10:15 "Ikaslearen ebaluazioa"

**Anaje Ferreira Inza** | Berritzegune Nagusia - Curriculum eta Metodologiako arduraduna  
**Arrate Oianguren Txurruka** | Hezkuntza Saila - Ikuskaritza Zentrala

---

10:15 - 11:00 "Praktika onak 3: Ebaluazio kompetentziala familiei komunikatzen"

**Amaia Osoro Gorrotxategi** | Plaentxi HLHI - Zuzendaria  
**Edurne Ugalde Izaguirre** | Plaentxi HLHI - Ikasketa Burua

---

11:00 - 11:15 Atsedena

---

11:15 - 12:00 "Praktika onak 4: Konpetentzietan ebaluatu eta beratu komunikatu"

**Ibon Zabala Arrillaga** | Urdanetako Eskola - HHko koordinatzailea  
**Maddi Alberdi Salegi** | Urdaneta Eskola - Ikasketa Burua

---

12:00 - 13:15 "Bertaratutakoekin elkarrizketan 3"

**Iñigo Salaberria Aliaga** | HEIZE - Presidentea

---

13:15 - 13:30 Atsedena

---

13:30 - 14:00 Mahai ingurua: "Ebaluazioaren argi ilunak"

**Iñigo Salaberria Aliaga** | HEIZE - Presidentea  
**Anaje Ferreira Inza** | Berritzegune Nagusia - Curriculum eta Metodologiako arduraduna  
**Maddi Alberdi Salegi** | Urdaneta Eskola - Ikasketa Burua  
**Josu Etxaburu Osa** | HEIZE - Koordinazio teknikoa

---

14:00 - 14:30 Sintesia

---

# Zuzendaritza



## Josu Etxaburu Osa

HEIZE, Zuzendari-ohia

---

JOSU ETXABURU OSA - Ondarroan jaioa 1961ean - Magisteritza ikasketak Filologia alorrean. - Euskal Filologia ikasketak egina. - Ikastetxeen zuzendaritzan Graduondoa - Euskal Kulturaren Graduondoa - Linguistikan Masterra IBILBIDE PROFESIONALA: - Irakaskuntza munduan ibilbide luzea: 32 urte - Ibilbide honetan, itunpeko ikastetxean, irakaskuntza kooperatiban eta Irakaskuntza Publikoan aritua - Azken 20 ikasturteak Elorrio Institutuan Euskara eta Teknologia irakasle gisa. - Urte betez Berritzegune Nagusian "Lidergoa eta Kalitatea ikastetxe publikoetan" lantaldeko arduraduna ZUZENDARITZAN IBILIBIDEA: - 3 urte Lea-Artibai Teknik Ikastetxeko Ikasketaburua. - 16 urte Elorrio Institutuko zuzendari - DANTZERTIko (Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola) zuzendari BESTE ERANTZUKIZUN BATZUK: - 15urteetan BIHEko (Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkarte) presidente. - 2 urteetan HEIZEko (Herri Ikastetxeetako Zuzendari/Zuzendaritza Taldeen Elkarte) presidente

## **Irakasleak**



**Maddi Alberdi Salegi**

---



**Olatz Alzua Galparsoro**

---



**Leire Arenal Garcia**

---



**Anaje Ferreiro Inza**

---



**Nerea Muguruza Azkarraga**

UPV/EHU , Ikerlaria

---



## **Arrate Oianguren Txurruka**

Eusko Jaurlaritza

---

Titulazioak: OHOKO irakaslea Psikologian lizenziatua Pedagogian lizenziatua EHU<sup>n</sup> Doktorea Lanpostuak. 1986tik irakaslea ikastetxe ezberdinetan Hezkuntza ikuskaria 2006tik Ikuskari zentrala 2023tik



## **Maialen Oiartzun Irastorza**

UPV/EHU

---

Lehen Hezkuntzako graduatua (2017) eta Gizarte eta Hezkuntza Arloko Ikerketako masterra (2018) Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea eta IkasGaraian ikerketa taldeko kidea. Bertan, honako doktore-tesia egiten ari da: "Irakasle onenak kalitateko eskolarako: lanbiderako sarbidearen diagnostikoa eta proposamenak euskal eskola publikorako".



## **Amaia Osoro Gorrotxategi**

---



## **Begoña Pedrosa Lobato**

---

Begoña Pedrosa (Areatza, 1975). Licenciada en Filología Inglesa (Universidad de Deusto, 1997) Máster en Lingüística (Master of Arts, University of Illinois, EEUU, 1999). Doctora en Lingüística Aplicada (Universidad del País Vasco, 2011). MBA Executive en Mondragon Unibertsitatea (2017). Experiencia en Mondragon Unibertsitatea desde 2002 hasta la actualidad: • Trayectoria de docencia en Grado en Educación Primaria y Educación Infantil, Trayectoria en Lengua Extranjera y Grado Audiovisual. Ha creado y coordinado diferentes grupos en el ámbito de la innovación. • Ha desarrollado su trayectoria investigadora en el grupo de investigación BAHÍ-IALE en las siguientes líneas de investigación: desarrollo de la competencia plurilingüe en contextos de lenguas minoritarias, estrategias pedagógicas en contextos CLIL y actitudes del alumnado respecto al aprendizaje de lenguas. • Trayectoria de gestión: decana de Humanidades y Ciencias de la Educación desde 2014.



### **Idoia Pujana Uriarte**

Botikazar BHI

---

Idoia Pujana Uriarte- Usansolon jaioa 1971ean -Farmazia Fakultatean ikasketak (Gasteiz, EHU) Elikagaien Zientzia eta Teknologia alorrean. - Doktoretza ikasketak Medikuntza Fakultatean (Leioa, EHU)- 2002an Tesia irakurrita- Egonaldian “Institute of Biotechnology” (Helsinki, Finland), “Institut Pateur” (Paris, Frantzia) IBILBIDE PROFESIONALA: - Hogeita zortzi urte irakaskuntza munduan. Ibilbide honetan, Lanbide Heziketako irakaslea , EHuko Irakasle Elkartua (Medikuntza eta Zientzia Fakultatetan) eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea. ZUZENDARITZAN IBILIBIDEA: - Hamabi urte Botikazar BHIko Zuzendaritza Taldeko kidea (Idazkaria eta Nazioarteko Proiektuen Arduraduna). Azkeneko zazpi urtetan Botikazar BHIko Zuzendaria.



### **Edurne Ugalde Izaguirre**

---



### **Ibon Zabala Arrillaga**

---

Heziketa Fisikoa eta Haur Hezkuntzako diplomaturak ditut Euska Herriko Unibertsitatean. 2007az geroztik Eskola Publikoan irakakasle eta azken 4 urteak Ordiziako Urdaneta eskolan, Haur Hezkuntzan. Gaur egun HHko koordinatzailea eta bost urteko tutore naiz. Aurten jarri dugu martxan Baso Eskola



ekimena.



## **Iñigo Salaberria Aliaga**

Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte, Presidentea

---

Musika ikasketekin batera EHUn Magisteritza eskolako Musika espezialista formakuntza jaso ondoren disziplina anitzetan jardun izan da. Lezo Herri Eskolako zuzendaritza ardurekin batera EAeko ikastetxe publikoen Heize elkarteko sorreratik koordinazio taldeko kidea. Gaur egun Heizeko presidentea da.

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-01 ARTE
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	68,00 EUR
<a href="#">UIK euskaraz</a>	-	98,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	83,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	68,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	83,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	83,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernu</a>	-	71,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa